

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

NEKASARITZA SAILA

NEKAZARITZAKO IDAZKARITZA TEKNIKOAK

Foru Gobernu Kontseiluaren 40/2021 Foru dekretua, abuztuaren 3koa. Onestea Arabako Lurralde Historikoko nekazaritza eta abeltzaintza azokak antolatu eta egiteko laguntzak arautzeko oinarriak

Arabako Lurralde Historikoan hainbat nekazaritza eta abeltzaintza azoka egiten dira urtean zehar, eta haietako batzuk tradizio handikoak dira. Toki erakundeek zein sektoreko elkarteek antolatzen dituzte, eta askotariko helburuak badituzte ere, hala nola produktu edo abeltzaintza arraza zehatzen bat sustatzea, azoka guztiek alderdi komun bat dute: landa eremua gero eta ezezagunagoa zaien hiritarren eta nekazaritza ekoizleen arteko lotura dira, eta ekoizleei ahalbidetzen diete gizartean eta ingurumenean duten eginkizuna ikusaraztea eta beren produktuak saltzea.

Lurralde honetan lantzen, hazten, elaboratzen eta eraldatzen diren nekazaritza eta abeltzaintza produktuen aberastasuna ezagutarazteaz gain, bertako ekoizpenari laguntzeko eta nekazari ekoizleen kalitatezko produktuen zuzeneko salmenta bultzatzeko aukera dira nekazaritza eta abeltzaintza azokak, eta horrek nekazaritza ustiategiaren bideragarritasunari laguntzen dio, haien ekoizpenen balio erantsia handitzen baitu.

COVID-19ak eragindako gaur egungo osasun krisiak agerian utzi du zein garrantzitsua den merkaturatze zirkuitu laburrak eta gertuko ekoizpenak sustatzea, zeinak funtsezkoak baitira elikadura burujabetza lortzeko eta kalitatezko elikagaien hornidura bermatzeko. Tokiko merkatuek eta azokek helburu hori lortzen laguntzen dute eta, horregatik, funtsezkoa da haiek babestea.

Diputatuen Kontseiluaren urriaren 9ko 52/2012 Foru Dekretuaren bidez, nekazaritza eta abeltzaintza azokak antolatu eta egiteko laguntzen oinarri arautzaileak onetsi ziren. Arau hori argitaratu zenetik urte batzuk igaro direnez, oinarri arautzaileak aldatzeko beharra ikusi da, hartara erraztearren onuradunek laguntzak eskatzeko eta gero hura justifikatzeko modua eta eman beharreko zenbatekoak egokitu eta sinplifikatzearen. Hori dela eta, interesdunek aurkeztuko dituzten eskaerak dagoeneko eginda dauden azokei buruzkoak izango dira; era horretan, laguntza esleitzearekin batera ordainduko dira zenbatekoak. Foru dekretu honen bidez, eskaerak sailkatzeko kategoriak ere aldatu dira; lehen, hain zuzen, kategorien arabera ziren dirulaguntzaren zenbatekoa eta dirulaguntza aplikagarriaren gehieneko ehunekoa. Bi kategoria ezarri dira, eta aurreko arauak ezartzen zuen dirulaguntzaren gehieneko zenbatekoa kendu da.

Indarrean dira 52/2012 Foru Dekretuaren helburuak, eta Nekazaritza eta Elikagaigintza Politikaren 17/2008 Legearen xedeetako bat da tokiko merkatuetan nekazaritza produktuak sustatzea eta merkaturatzea.

Iritzita, laguntza hauen oinarri arautzaileak interpretatu eta behar bezala aplikatzeko orduan, eraginkorragoa dela proposatutako aldaketa guztiak testu eguneratu batean jasoko dituen dekretu berri bat onestea, gaur egun indarrean dagoena aldatu ordez, hura indargabetzea proposatzen da.

Bete dira xedapen orokorrak egiteko prozedura onesten duen Foru Gobernu Kontseiluaren maiatzaren 23ko 29/2017 Foru Dekretuan ezarritako izapide guztiak.

Aginduzko txostenak ikusi dira, eta Nekazaritza Saileko foru diputatuak proposaturik eta Foru Gobernu Kontseiluak gaur egindako bilkuran gaia aztertu ondoren, hau

XEDATZEN DUT

Lehenengoa. Onestea Arabako Lurralde Historikoko nekazaritza eta abeltzaintza azokak antolatu eta egiteko laguntzak arautzeko oinarriak, honekin batera doan eranskinaren artikuluekin bat etorriz.

Xedapen indargabetzailea. Indargabetuta geratzen da nekazaritza eta abeltzaintza azokak antolatzeko eta egiteko 2012rako dirulaguntza deialdia eta oinarri arautzaileak onesten dituen Diputatuen Kontseiluaren urriaren 9ko 52/2012 Foru Dekretua.

Azken xedapenetatik lehenengoa. Nekazaritza Saileko foru diputatuari ahalmena ematea foru dekretu hau garatu eta aplikatzeko beharrezkoak diren xedapenak eman ditzan.

Azken xedapenetatik bigarrena. Foru dekretu hau ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunean jarriko da indarrean.

Vitoria-Gasteiz, 2021eko abuztuaren 3a

Diputatu nagusia

RAMIRO GONZÁLEZ VICENTE

Nekazaritza Saileko foru diputatua

EDUARDO AGUINACO LÓPEZ DE SUSO

Nekazaritza zuzendaria

M^a ASUNCIÓN QUINTANA URIARTE

I. ERANSKINA

1. artikulua. Xedea

Foru dekretu honen xedea da Arabako Lurralde Historikoan nekazaritza eta abeltzaintza azokak antolatzeko laguntzen oinarri arautzaileak ezartzea.

“Azoka” izendapen orokorrak hainbat forma izan ditzake (lehiaketak, emanaldiak, erakusketak eta abar), betiere xede nagusia Arabako lehen sektoreko ekoizpena sustatzea, zabaltzea eta hari balioa ematea bada.

Ez dira laguntza hauen xede izango artisautza azokak edo beste sektore ekonomiko batzuk sustatzea xede duten bestelakoak.

2. artikulua. Onuradunak

2.1. Honako hauek izan daitezke laguntzen onuradunak:

2.1.1. Arabako Lurralde Historikoan nekazaritza eta/edo abeltzaintza azokak antolatzen edo egiten dituzten elkarteak, ekoizleen kooperatibak edo loturiko bestelako elkarteak, baldin eta:

- a) Zerga egoitza Araban badute.
- b) Zerga betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak egunean badituzte.
- c) Legez eratuta eta dagozkien erregistroetan izena emanda badaude.

d) Emakume Nekazarien Estatutuaren urriaren 15eko 8/2015 Legeak 19. artikuluan xedatutakoa aplikatuz, azoken antolatzailleak nekazaritzaren arloan diharduten profesionalen, enpresarien, sindikatuen edo bestelako elkarteak edo erakundeak badira, haien zuzendaritza organoetan emakumeen presentzia gutxienez orekatua izan behar da, ezertan galarazi gabe arau horrek xedapen gehigarrietatik bigarrean ezarritakoa.

2.1.2. Arabako Lurralde Historikoko toki eta/edo lurralde erakundeak, hala nola kontzejuak, udalak, kuadrillak edo bestelakoak, lurraldean nekazaritza eta/edo abeltzaintza azokak antolatzen edo egiten dituztenak.

2.2. Sustatzaile nagusi bakoitzeko urteko azoka bakarerrako eskatu ahal izango da laguntza.

2.3. Baldin azokak antolatzaile bat baino gehiago baditu, sustatzaile nagusitzat hartuko da ekitaldiaren antolaketa kudeatzeaz arduratzen den, gastuen ordainketak egiten dituen eta fakturen jasotzaile gisa ageri den erakundea, elkarte edo kooperatiba. Sustatzaile nagusiaren arabera, eskaera oinarri hauetan jasotako ondorio guztietarako hartuko da kontuan.

3. artikulua. Diruz lagun daitezkeen kontzeptuak

Gastu hauek joko dira diruz lagungarritzat:

- a) Azokak egiteko tokiak egokitzeko egin beharreko lanak.
- b) Ekitaldia egiteko edo publikoaren zerbitzurako beharrezkoak diren instalazioak eta zerbitzuak.
- c) Zabalkundea eta publizitatea egiteko gastuak, hala nola kartelak, liburuxkak, komunikabi-deak etortzearen gastuak eta abar.
- d) Azoka prestatzeko edo egiteko lanetan aritzen diren langileen ordainsariak.
- e) Altzarien edo beharrezko elementuen alokairua.
- f) Aseguruen kontratazioa.
- g) Nekazaritza eta abeltzaintzako produktuen lehiaketetan emandako garaikurrak edo sariak.
- h) Egoki bada, abereen mugimenduek eragindako gastuak, hala nola ekoizle edo ganaduzaleentzako dietak, garraioa, asegurua, albaitariaren arreta eta abar.
- i) Bestelako kontzeptuak, betiere beharrezkoak badira azoka egiteko edo jendea erakartzeko.

4. artikulua. Laguntzaren zenbatekoa eta dirulaguntza zehaztea

4.1. Dirulaguntzak norgehiagoka bidez emango dira.

4.2. Espedientea zein kategoriatan sailkatzen den, horren arabera izango da eskaera bakoitzari emango zaion dirulaguntza. Hona hemen kategoriak eta ezarriko zaien ehunekoa:

a) Nekazaritza eta abeltzaintza sektoreari loturiko erakusketak, lehiaketak edo bestelako erakustaldiak, ez direnak, bere horretan, nekazaritzako elikagaiak sustatzeko eta saltzeko: 4.000,00 eurora artekoa, baldin eta zenbateko hori diru lagun daitezkeen kontzeptuen batuaren guztizko zenbatekoa ehuneko 30 baino handiagoa.

b) Nekazaritzako elikagaiak sustatzeko nekazaritza eta/edo abeltzaintza azokak: 4.000,00 eurora, baldin etz zenbateko hori diruz lagun daitezkeen kontzeptuen batuaren guztizko zenbatekoa ehuneko 40 baino handiagoa ez bada.

4.3. Azoka bakoitzaren inguruabarrak azertu ondoren, organo izapidegileak dagokion taldean katalogatuko du espediente bakoitza.

4.4. Epe barruan egindako eskaerak jaso ondoren, dirulaguntza jaso dezaketen espedienteak hautatuko dira eta haietako bakoitzari dagokion dirulaguntza kalkulatu da, 4.2. artikuluan ezarritako katalogazioaren arabera.

4.5. Laguntzaren eskatzaile nagusia zein den ikusita, egindako eskaerak talde hauetan banatuko dira:

1. taldea: toki edo lurralde erakundeak.
2. taldea: ekoizleen kooperatibak edo elkarteak.

4.6. Aurreko bi taldeetako bakoitzari dagozkion dirulaguntzak zehaztu eta gero, bi partiden arteko kreditu banaketa aldatu ahal izango da, baina dirulaguntzaren kreditu orokorrean eragin gabe.

4.7. Salbuespenez, kreditu erreserba nahikoa ez bada talde bateko edo bietako eskaera guztiei erantzuteko, proportzionalki hainbanatuko da, eskaera bakoitzari hasiera batean aplikagarri zitzaion dirulaguntzaren balioarekiko proportzioan.

5. artikulua. Eskaerak aurkezteko epea, lekua eta modua

5.1. Urtero, laguntzen deialdia onetsiko da, eta honako hauek jasoko ditu:

- Eskaerak aurkezteko epea.
- Deialdia ebazteko gordetzen den kreditua.
- Diruz lagun daitezkeen azokak egiteko aldia.

5.2. Eskaerak hauetako batean aurkeztu behar dira:

- Arabako Foru Aldundiaren Erregistro Orokorra.
- Gasteizko, Guardiako eta Laudioko Ogasun bulegoen erregistroak.
- Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legeak 16.4 artikuluan jasotako gainerako erregistroetako batean.

Hala ere, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen 39/2015 Legearen 14.2 artikulua betez, honako hauek egoitza elektronikoa dagoen izapide zehatzaren bitartez telematikoki aurkeztera behartuta daude: (<https://egoitza.araba.eus/eu/-/pr-ayudas-para-la-organizacion-de-ferias-agricolas-y-ganaderas-1>) pertsona juridikoak, nortasun juridikorik gabeko erakundeak, elkargoko kide izatea nahitaezkoa duen jarduera profesional batean dihardutenak, jarduera horretan egiten dituzten izapideetarako, eta administrazioarekiko harremana elektronikoki izatera behartuta dagoen interesdun bat ordezkatzeko dutenak.

5.3. Laguntza eskatuz gero, organo kudeatzaileak baimena izango du pertsona edo erakunde eskatzaileak zerga betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak egunean dituela egiaztatzeko beharrezko ziurtagiriak eta argibideak eskuratzeko.

5.4. Eskaera aurkeztuz gero, eskatzaileak oinarri arautzaile hauetan ezarritako betebeharrak eta konpromisoak onartzen ditu.

6. artikulua. Aurkeztu beharreko agiriak

6.1. Aurkeztutako eskaeretan, dagoeneko eginda dagoen nekazaritza eta/edo abeltzaintza azokari buruzko argibideak jaso beharko dira.

6.2. Eskaerekin batera agiri hauek aurkeztu beharko dira:

- a) Azoka egin bitartean gauzatutako jardueren memoria.
- b) Justifikazio kontu erraztua, behar bezala beteta eta diruz lagundutako ekitaldia finantzatzeko diru sarrerak eta gastuak adierazita.
- c) Fakturak eta/edo gastuen egiaztagirak eta dagozkien ordainagirak, edo merkataritzako trafiko juridikoan antzeko balio frogagarria edo antzeko administrazio eraginkortasuna duten bestelako agiriak, justifikazio kontuan jasotakoak.

Nolanahi ere, 2.500,00 euroko gastuak edo hortik gorakoak banku transferentziaren edo beste titulu baliokideren baten bidez frogatu behar dira, iruzurraren kontrako prebentzio ekin-tzen eta iruzurraren kontra borrokatzeko ekintzen urriaren 29ko 7/2012 Legearen 7. artikuluan xedatutakoaren arabera.

d) Ekoizleen kooperatiben edo elkarten kasuan, erantzukizunpeko adierazpena, honako argibide hauek jasotzen dituena: erakundea osatzen duten pertsona guztien kopurua, sexuen arabera bereizita; eta zuzendaritza organoa osatzen duten pertsona guztien kopurua, sexuka bereizita.

e) Erantzukizun zibileko aseguruak kontratatu izanaren ziurtagiria.

f) Azokaren edo ekitaldiaren berri zabaltzeko kartel edo liburuxkaren alde bat edo haren kopia, non agertu beharko baita Arabako Foru Aldundiaren aipamena eta dagokion logotipoa.

g) Baldin abereak egon badira, Arabako Foru Aldundiko Abeltzaintza Zerbitzuaren baimena edo ekitaldian albataria egon delako egiaztagiria.

6.3. Foru Aldundiak beretzat gordetzen du eskubidea betiere beharrezko deritzon dokumentazio osagarria eskatzeko dekretu honetan ezarritako laguntzak eskatzen dituzten pertsona fisiko eta juridikoei, eskaerak behar bezala balioetsi ahal izateko.

6.4. Eskaeretan akatsen bat dagoela edo daturen bat falta dela antzematen bada, organo izapidetzaileak, hala dagokionean, pertsona edo erakunde interesdunei eskatuko die eskaeran eskatutako betekizunen gaineko akatsak zuzentzeko edo eskatutako agiriak aurkezteko, 10 egun balioduneko epean, errekerimendu jakinarazpena jasotzen den egunaren hurrengotik zenbatzen hasita, larunbatak kontuan hartu gabe. Jakinarazpen horretan adieraziko da eskatutakoa bete ezean eskaera ezetsiko dela, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legeak 68.1 artikuluan ezarritakoari jarraituz.

7. artikulua. Izapidetzea

7.1. Eskaerak aurkezteko epa amaituta, espedienteak Nekazaritza Garapenerako Zerbitzuak izapidetuko ditu.

7.2. Espedientea izapidetzen den bitartean, organo kudeatzaileak behar dituen argibide eta agiri gehigarriak eskatu ahalko dizkio eskatzaileari, ebazpen proposamena egiteko beharrezko diren datuak zehaztu eta egiaztatzeko. Interesdunak ez badu ezer egiten izapide hori betetzeko, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 73. artikuluan xedatutakoa beteko da.

7.3. Laguntza horiek balioetsiko dituen kide anitzeko organoa ondoren aipatzen diren pertsonen edo, beharrezkoa balitz, haien ordezkoei osatuko dute:

- Nekazaritza Garapenerako Zerbitzuaren burua
- Nekazaritza Garapenerako Zerbitzuko teknikari bat.
- Administrazio Kudeaketa Atalaren burua.

7.4. Epe barruan aurkeztutako eskaerak soilik hartuko dira kontuan, eta gainera, laguntza eskatzeko beharrezko dokumentazioa izan beharko dute oinarri hauetan zehaztutako eran.

7.5. Foru dekretu honetan ezartzen ez diren kasuei eta zirkunstantziei dagokienez, kide anitzeko balioespen organoak bidezkozat jotzen dituen irizpideak aplikatu ahalko ditu modu arrazoiatuan.

8. artikulua. Ebazpena eta jakinarazpena

8.1. Kide anitzeko balioespen organoak hala proposatuta, foru organo eskudunak ebatziko ditu espedienteak, indarrean dagoen araudian oinarrituta. Ebazpen horrek administrazio bidea amaituko du eta haren aurka administrazioarekiko auzi errekurtsioa jarri ahal izango da Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Auzitegi Nagusian, errekurtsio horretarako arauak jarraituz. Aukerako berraztertze errekurtsioa ere jarri ahal izango da.

8.2. Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legeak 21. artikuluan xedatutakoaren ondorioetarako, gehienez sei hilabeteko epea izango da prozeduraren ebazpena eman eta jakinarazteko, eskaerak aurkezteko epea bukatzen denetik aurrera. Epe hori igarotakoan esanbidezko ebazpena eman eta jakinarazi ez baldin bada, administrazioaren isiltasuna ezestekoa izan dela ulertuko da, Arabako Lurralde Historikoko Dirulaguntzen urriaren 19ko 11/2016 Foru Arauaren 23.5. artikuluari jarraituz.

8.3. Ebazpenak laguntzak esleitzekoak eta ordaintzekoak izango dira, eta espediente bakoitzeko laguntzaren zenbatekoa zein den ezarriko dute. Ebazpena negatiboa bada, arrazoa zehaztuko da, bai eta, hala badagokio, ehuneko ere.

8.4. Laguntzaren ebazpena banan-banan jakinaraziko da eta bertan aurreko apartatuan adierazitako informazioa jasoko da.

9. artikulua. Laguntzak ordaintzea

Laguntzak eman eta berehala egingo da ordainketa, eta ezinbesteko baldintza izango da 6. artikuluan adierazitako agiri guztiak aurkeztu izana.

10. artikulua. Onuradunen betebeharrak

Laguntzen onuradunek betebeharrak izango dituzte, oro har:

a) Emandako dirulaguntza onartzea eta eman zaion erabilera zehatzerako baliatzea, laguntzak esleitzeko ebazpenean ezarritako baldintzen arabera. Ildo horretan, laguntza eman zaiela dioen jakinarazpena jasotzen duten egunetik aurrera, 10 egun baliaduneko epean onuradunek ez badiote berariaz eta idatziz uko egiten laguntzari, onartu egin dutela ulertuko da.

b) Arabako Foru Aldundiko Nekazaritza Sailari, Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Sailari eta Herri Kontuen Euskal Epaitegiari ematea beren eginkizunak gauzatzean eskatzen duten informazioa foru dekretu honen babesean jasotako laguntzari buruz.

c) Laguntza zuzen eman dela egiaztatzeko behar diren kontrol guztiak gainditzea.

d) Jasotako laguntzak zertan erabili diren egiaztatzen duten agiriak gordetzea, agiri elektronikoa barne, egiaztatze eta kontrol jarduketan gai izan daitezkeen bitartean.

e) Dirulaguntzaren xede izan daitezkeen gastuaren zenbatekoa 40.000,00 euro baino gehiago bada (obra burutzeko kostua) edo 15.000,00 euro baino gehiago (ekipamendu ondasunen hornidura edo aholkularitza enpresen edo laguntza teknikoaren ematen dutenen zerbitzugintza), zerbitzua emateko edo ondasuna entregatzeko konpromisoa hartu baino lehen onuradunak gutxienez hiru hornitzailei eskatu beharko die eskaintza aurkezteko. Hala gertatuz gero, eskaintzen frogagiriak aurkeztu beharko ditu.

11. artikulua. Laguntzak berrikustea eta itzultzea

11.1. Onuradunek ez badituzte betetzen foru dekretu honetan hartutako konpromisoak eta foru dekretu honetan eta laguntza emateko ebazpenean ezarritako baldintzak eta xedea, edo laguntza eskuratzen badute horretarako bete behar diren baldintzak bete gabe, galdu egingo dute emandako laguntza jasotzeko eskubidea, eta dagoeneko diru kopururen bat jaso badute, Arabako Foru Ogasunari itzuli beharko diote nahitaez, aplikatu beharreko legezko interesak gehituta. Horrek guztiak ez dio kalterik egingo bidezko egintzak bideratzeari, Arabako Lurralde Historikoko Dirulaguntzen urriaren 19ko 11/2016 Foru Arauak xedatutakoaren arabera.

11.2. Zenbateko horiek zuzenbide publikoko diru sarreratzat joko dira, legez dagozkion ondorioetarako.

11.3. Nekazaritza Saileko foru diputatuaren foru agindu bidez erabakiko da dirulaguntza osorik edo horren zati bat itzuli behar den, ikuskatze edo kontrol txostenari eta itzultzeko proposamenari atxikiz, interesdunari entzun ondoren.

11.4. Dirulaguntza osoa edo zati bat itzultzeko prozeduraz gainera, zehapen prozedura abiarazi ahal izango da, Arabako Lurralde Historikoko Dirulaguntzen urriaren 19ko 11/2016 Foru Arauak aurreikusitako arau hausteengatik.

12. artikulua. Nahita egindako ez betetzeak

Nahita egindako ez betetzat joko dira pertsona edo erakunde onuradunak laguntza bat emateko eskatutako baldintzak artifizialki sortu dituela adierazten dutenak, kasuan kasuko

neurriaren helburuen kontrako abantaila bat lortzeko. Halakoetan, onuraduna baztertuta gertuko da eskubidez egokituko litzaiokeen laguntzatik, eta jasotako zenbatekoak eta dagozkien interesak itzuli beharko ditu.

13. artikulua. Araubide juridikoa

Foru dekretu honetan jasoriko laguntzen onuradunek Arabako Lurralde Historikoko Dirulaguntzen urriaren 19ko 11/2016 Foru Arauak xedatutakoa bete beharko dute.

14. artikulua. Laguntzen bateragarritasuna

Foru dekretu honetan jasotako laguntzak bateragarriak izango dira onuradunek beste erakunde publiko edo pribatu batzuetatik jaso ditzaketenekin, baina laguntza guztien batura ezingo da inolaz ere izan jardueraren kostua baino gehiago.

15. artikulua. Laguntzen finantzaketa

Foru dekretu honetan ezarritako laguntzetara bideratzen diren baliabide ekonomikoak Arabako Foru Aldundiaren aurrekontu kredituetatik aterako dira.